

# LEHEN INPRESIOAK

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**LETICIA:** Ricardo? Uh, Ricardo... Jakina badakidala nor den. Playamarren ezagutu nuen -ez naiz berriz ere Playamarera joan, aizu, eta begira Playamarrekin indartsu hasi nintzela hasieran; joan nintzen lehen aldian, izugarri gustatu zitzaidan: harea xeheko hondartzak, ur kristalinoa, tabernak... maitemindu egin nintzen, Playamar polita da, ezta?; gero joaten jarraitu nuen, eta, joaten nintzen moduan, mmm (*Dagoeneko ez zaio hainbeste gustatzen*)... egun batean, kalean paseatzen ari nintzela lapurtu ninduten, Playamarren, eta ez naiz inoiz gehiago joan. Ricardo, esan didazu? Bada, jakina badakidala nor den Ricardo. A ze kasualitatea! Ricardo. Gaizki amaitu du, ezta? Begira, zerbait esango dizut. Lehen aldiz ikusi nuenean, maitemindu egin nintzen -esaten dizudan moduan-, maitemindu egin nintzen. Zer izaera, zer nortasun. Karisma askatzen duten pertsona horietarikoa da, munduaren bukaeraraino eraman zaitzaketena. Bigarren aldiz ikusi nuenean, nahiko pasatu zitzaidan, maitemina. Hirugarren aldiz ikusi nuenean, pentsatu nuen: "Bada, a zelako tipo kaikua!", ezta? Tira... Jendea ezin da aurreikusi, bizitza ezin da aurreikusi. Orain ez dakit gehiegi hitz egiten ari naizen. Ba, badakizu zer gertatzen den?: Konfiantza ematen duzu. Bai. Aspaldiko laguna dirudien horietakoa zara, badakizu? Izaera bat duzu, nortasun bat... (*Izugarri gustatzen zaio*), Ez dizute inoiz esan? (*Bere ingurura begiratzen du*) Eta taberna hau ere gustatu zait, ez nuen ezagutzen, baina, asko gustatzen zait, hemen urte askotan ikusten dut neure burua lanean. (*Amaitzen du*) Beno, ba ezer ez. Nigan interesa baduzu, zerbitzari ona naiz (*Curriculumuma seinalatuz*), hor duzu nire telefonoa (*Iribarre egiten du*)...

**OHARRAK:** **LETICIA** oso hitzuna da. Gehiegi. Lan-elkarrizketa batean dago -gutxi gorabehera informala-, kopa-taberna batean zerbitzari gisa lanean sar daitekeen ikusteko.

Monologo hau erabilgarria izan daiteke adierazkortasuna erakutsi nahi bada. Keinu askoko ekintza ahalbidetzen du, energia asko. Oso azkar hitz egiten du **LETICIAK**.

Ele txera  
munduarek zabalduz

